



# Abadiño

Elizateko Udala



*Landa Garapena, Merkataritza eta Turismoa*  
Desarrollo Rural, Comercio y Turismo

Abadiñoko Udaleko Landa Garapen, Merkataritza eta Turismo Arloak martxan jarri dau Abadiñoko merkataritza sustatzeko 2018ko erosketa-bonuen kanpaina. Kanpaina hau 2018ko irailaren 1ean hasi eta urriaren 31an amaituko da. Hona hemen kanpainaren xehetasunak:

- Udalak 5€ko 1000 bonu bananduko ditu.
- Erosleak bonua Udal bulegoetan eskuratuko dau (Udaletxean nahiz Traña-Matienako Udal bulegoan). Irailaren 1etik aurrera jarriko dira herritarren eskura. ENA zein Atzerritarren Identifikazio Zenbakia erakutsi behar da, eta pertsona bakoitxak bonu bat baino ezingo dau lortu.
- Bonua lortzeko, Abadiñon erroldatuta egon behar da eta 16 urte euki.
- Bonu bakoitxagaz gutxieneko 15 euroko edo hortik gorako erosketa bat egin beharko da, kanpainagaz bat eginda dagoen herriko edozein saltokitan.
- Bonuak ezingo dira metatu, hau da, ezingo da erabili bonu bat baino gehiago erosketa bera egiteko.
- Kanpainagaz bat eginda dauden saltokiek iragarkia jarri beharko dute eskaparatean eta erosleei kanpainaren ezaugarrien barri emon.